

**ELAREN IRITZIA ESKUALDE MAILAKO ENPLEGU-PLANETATIK
SORTUTAKO PROIEKTUENTZAKO LAGUNTZAK EMATEKO
LANBIDEREN AKORDIOARI BURUZ**

ELA, 2012KO URRIAREN 17A

SARRERA

Joan den uztailaren 16an Lanbideren Administrazio-Kontseiluak erabaki zuen laguntzak emateko deialdia onartzea Eskualde mailako eta inguru deprimituetarako Enplegu-Planetarako; honela Enplegu eta Gizarte-Gaietarako sailburuaren 2012ko maiatzaren 9ko agindua garatzen da.

Laguntzen ezaugarri nagusiak honakoak dira:

- Deialdia EAEko udalei zuzenduta dago, Eskualde mailako Enplegu-Planak egin ditzaten. Egitasmoak hainbat jarduera-eremutan abia daitezke: iriskortasuna eta mugikortasuna, azpiegiturak eta komunikazioa, ofizio tradizionalen berreskurapena, etab. Planekin lurraldea garatu eta modernizatu beharko litzateke.
- Aipatzen den helburua “kalitatezko enplegu berriak” sortzea da, dagokion lurraldean estrategikoak izango direnak, batik bat “inguru deprimitu”etan, hots, 2012ko apirilean %14,1etik gorako langabezia tasa zuten udaletan.
- Laguntzak honako erakundeek jaso ditzakete: eskualdeak, mankomunitateak, koadrillak, udal-elkarte edota udalak.
- Laguntzak erabaki, eman, jarraipena egin eta abarretarako eskumena duen organoa Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusia izango da.

Programa honetara 14 milioi euro bideratuko dira (7 berariaz inguru deprimituetarako dira), eta Lanbideren 2012-2013 ekitaldietako aurrekontuetatik aterako dira. 2012ko aurrekontuei dagokien zenbatekoa 3 milioi besterik ez dira.

PROPOSAMENAREN EDUKIA

Egitasmoak zehaztu egiten du zein ekintza konkretu izango den diru-laguntza jasotzeko modukoa.

1. Enplegu eta prestakuntza proiektuak. Proiektuotan hainbat atal izango dira: langabeentzako prestakuntza (teoriko zein praktikoa), lanpostuko trebakuntza (gutxienik 6 hileko kontratuak) eta laneratze plana, proiektua amaituta.

Diruz lagun daitekeen proiektu bakoitzerako Lanbiden gutxienik enplegu bilatzaile gisa izen emandako 6 pertsona egongo da. Gutxienez %50ak Diru-Sarrerak bermatzeko Errenta (RGI) jaso behar du, eta gainerako %50etik %30 RGI jasotzen ez duten lehentasunezko kolektiboetakoak izango dira (30 urtetik beherako prestakuntza maila apala duten lan-eskatzaileak, lan bila dabiltzan 45 urtetik gorako epe luzeko langabeak, gizarte-bazterketa jasateko arriskua duten pertsonak, ezintasunen bat dutenak edota erregimen irekian dauden espetxeratuak).

Diru-laguntza gehienera ere 5.500 € izango da partaideko. Honakoak dira diruz lagun daitezkeen gastuak:

- Sortzen den zuzeneko enplegu bakoitzeko, Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren (LGS) %100 6 hilabetez, Gizarte-Segurantzarekin lotutako gastuak izan ezik.
- Lankide diren kanpo-eragileek emandako prestakuntza espezializatuko gastuak.
- Jarraipen eta koordinazio gastuak; hauek inola ere ez dira proiektuaren %5etik gorakoak izan.

2. Kontratuak amaitzeko EEEetatik datozen kolektiboentzako laneratzeko proiektu integralak,

EEE bat medio edo enpresaren jarduna amaitzen delako lanik gabe geratu diren pertsonen eskaintako orientabidea, aholkularitza, prestakuntza eta bitartekaritza ekintza guztiak izango dira. Gutxienez langabe onuradunen %35ak EEE batetik etorri behar du.

Aurreko paragrafoan aipatutako kontuetarako, pertsonako laguntza 2.400 € izango da.

3. Ekintzailentzako eta autoenplegurako proiektuak

Enpresa-ekimenak sortzea sustatu nahi du, autoenplegua zein beste edozein forma juridiko medio (kooperatibak, elkarte laboralak). Horretarako laguntzak izango dira enpresaren bideragarritasunari eta planari buruz aholkua ematearren, baita 2013ko urria baino lehenago hasten diren negozioentzat ere.

Proiektuko 5.500 €ko diru-laguntza izango da, eta diruz lagun daitezkeen gastuak aipatutako aholkularitza eta horretan diharduten langileen jarraipen eta koordinaziokoak izango dira (gehienera proiektuak eragingo duen guztirako gastuaren %10).

4. Kontratatzeko laguntza-proiektuak

Enpresa zein udalei laguntza emango zaie kontratuak egin ditzaten, gutxienez 6 hilabeterako, Lanbiden izena emanda dauden langabeekin.

Proiektuok enplegu eta prestakuntzarako egitasmoen baldintza berdinak izango dituzte (6 pertsona...).

Kontratuotan LGSaren %100ko laguntza emango da, Gizarte-Segurantzari lotutako gastuak izan ezik.

Programak aipatzen du proiektu hauekin ezin izango dela aurrez zegoen edo inoiz martxan egon zen programarik jarraitu.

5. Prestakuntza proiektu espezializatuak

Prestakuntza era hau kontratuak amaitzeko EEEa duten enpresetako langileentzat zein enpresa baten jardun berrietarako langabeentzat izango da.

Prestakuntza hau erakunde espezializatuak emango dute (ez da besterik zehazten), eta aurrekontua aldarora izango da, ekintza bakoitzean izango den ordu eta ikasle kopuruaren arabera, orduko 13€an. Gainera, jarraipen eta koordinazio lanetan diharduten langileen gastuak gehituko dira, eta hauek ezin izango dute proiektuaren guztirako gastuaren %5 gainditu.

VALORACIÓN DE LA CONVOCATORIA Y CONCLUSIONES

1. Plan hauekin ez da kalitatezko enplegurik sortuko:

- Lanbidek Eskualde-Plan hauetarako finkatu dituen diru-laguntza lerroak ez dira inondik ere berriak; lehenago ere antzekoak baziren. Haatik, Lanbideren politikak porrot egin duela begibistakoa da. Hego Euskal Herriko langabezia-tasa dagoeneko %15,9an dago, batez besteko maila europarra baino 5 puntu gorago. Hilero enplegua suntsitzen da, eta ildo beretik joaten tematzeak ez du lanposturik sortzea ekarriko.
- Diruz lagun daitezkeen enpleguetako asko ez dira berriak izango, lehenagotik zeudenak baizik. Maiatzeko aginduak esaten zuen arren “udalen inplikazio ekonomikoa” beharrezkoa zela, inork ez du uste udal hauek -zeinetako asko egoera ekonomiko larrian baitaude-, enplegua sortuko dutenik langileak kontratatuz eta hauen kostuaren zati handi bat beren gain hartuz.
- Enplegu prekarioa bultzatzen dute. Egitasmo horiek ez dute hitzarmen kolektiboen aplikazioa bermatzen (Lanbideko beste programa batzutan bezala, araudi laborala ez betetzea bultzatzen da). Areago, bermatu egiten dute hitzarmenak ez direla aplikatuko, eta kontratatzen dituzten pertsonak Lanbidearteko Gutxieneko Soldata baino ez jasotzeko arriskua dago. ELAk salatu izan du Lanbideren gisa honetako programek legez kanpoko aldi baterako kontratuak sustatzen dituztela. Izan ere, sei hilabeterako kontratua egitea zergati justifikaturik gabe legez kanpoko da, eta hori bultzatzen dute programa hauek.
- Lanbidek finkatu dituen prestakuntza-programek berriro erakusten dituzte ELAk sarri salatu izan dituen gabezia handiak. Ez da garatzen enpresen eta langileen zinezko beharrezko araberako prestakuntza eredurik, eta enpresario-elkarteen zein CCOO eta UGTren negoziua bultzatzen da. Eskualde mailako enplegu-planen deialdia ere tankera honetakoa da.
- Laneratzeko eta ekintzaileentzako zein autoenplegurako programak enpleguarekin negoziua egiten duten erakunde pribatuei dirutza publikoa emateko modu bat dira. Hain zuzen, enplegu-zerbitzu publiko integral baten aurkako eredua.

2. ELA eskualdeetan oso errotutako enplegu-zerbitzu publikoaren alde dago. Gure sindikatuak betidanik aldeztu izan du hori. Alabaina, Eusko Jaurlaritzaren apustua beste bat izan da, enplegu-politika aktiboak eskuratu aurretik eta horren ostean. Honelako eskualde-programei ekiteak esan nahi du Lanbidek ez duela funtzionatzen; halere, ez dute enplegurik sortuko.

3. ELAren ustez larria da Eusko Jaurlaritzaren gaitasun eza ardura udalekin partekatuz estali nahi izatea. Udalek ez lukete joko horretan sartu beharko, izan ere, Lanbidek ezartzen baititu arauak eta tarte oso murrizta geratzen baita. Udalak Lanbideren beste edozein erakunde lankideren moduko bihurtzen dira, plan desegokiak aplikatzeko agente huts alegia.

4. Aurrekontuaren zatirik handiena 2013rako uzten da. Hots, agintaldia amaitu duen Jaurlaritza batek hurrengoari uzten dio egitasmo eztabaidagarri bat kudeatzeko lana.

5. ELAk ez du Eskualde-Plan hauetan parte hartuko. Aurreko puntuetan azaldu dugu zergatik. Gainera, ez litzateke koherentea Lanbideren Administrazio-Kontseiluan parte hartzen ez dugularik (bere garaian emandako arrazoiak medio), eskualdeetan Kontseilu horren erabakiei babesa ematea. Aginduak dioenez, "Lanbidek tokiko eragileak

finantzatzen ditu, maila handiagoan edo txikiagoan” Lanbideren “enplegu eta prestakuntzarako antolakundea eta baliabideen parekoa egin dezaten”. EAE mailan txarra dena tokiko esparruetan ere hala da.

6. ELAk enplegu-politikak goitik behera aldatzea eskatzen du. Hasteko, administrazioak (Eusko Jauriaritza, Aldundiak eta Udalak) egiten ari diren murrizte-politikak bertan behera utzi behar dira. Politika hauek eragiten dute, hain zuzen, langabezia hainbeste haztea. Erakundeak enpleguaren egoeraz kezkatuta baleude murrizketei aurre egin beharko liekete, eta ez dute hala jokatzeko. Lanbideren jardunbidea, Eskualde mailako Enplegu-Planak barne, itxura egitea da, jendeari sinetsarazi nahian agintariak enpleguarekin kezkatuta daudela. Errealitatetik aski urrun dabilta.